


BIZKAIA

Bizkaia da hondakin gehien errausten duen herrialdea eta ondorioz zabortegeiak gutxien erabiltzen dituen. Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua Zabalgarbi da eta hondakinak behar dira erretzeko. Honek birziklapen eta konpostatze tasa eskasak eragiten ditu. Konpostatzea eta birziklapena bultzatzeko politika oso eskasak egiten baitira. Esaterako, organikoaren bilketa selektiboa ez da herri guztietara iristen.



Bilketa selektiboa %45,49an zegoen 2018an, oso eskasa birziklapen tasak hobetu nahi badira eta birziklapenari lehentasuna eman nahi bazaio erraustegiaren eta zabortegeiaren aurretik. Bestalde aipatu behar da, txosten honetan jada azaldu dugun bezala, Bizkaiaiko Foru Aldundiak birziklapen tasak kalkulatzeko hiri hondakinak ez direnak ere sartu dituela eta datu hau zuzenduz, Gorka Buenok egin duen estimazioaren arabera, Bizkaiaiko birziklapen tasa %39,4koa dela, eta ez datu ofizialetan agertzen den %43,76a.

Europar Batasunak zabortegei dagozkien helburuak beteko ditu Bizkaia, birziklatzen ez den guztia tratamendu mekaniko biologikoz (TMB) tratatzen baitu zabortegeira eraman aurretik. Gainera, TMBtik ateratzen den kopuru handi bat erraustegira doa, beraz zabortegeira eramaten den kopuruak dagoeneko 2025eko helburua bete du, eta ez dute arazorik izango hondakin gehiago erre eta 2035erako %10a baino gutxiago eramateko. Baina Europar Batasunak ezartzen dituen helburuak betetzeak ez du esan nahi Bizkaiaiko hondakinen kudeaketa iraunkorra denik, guztiz kontrakoa baizik. Erraustegian oinarritutako kudeaketa osasunarentzat eta ingurumenarentzat kaltegarria da.